

JUAN ANTONIO MOGEL(1745-1804)

BIZITZA TA LANAK

Mogeldarren artean ezagunena dogun Juan Antonio au Eibar´en jaioa dogu. Abadea izan zan eta 1770n. urtean Markiña´n egoan abade eta antxe il zan gaisoa begiratzen ebillala kutsututa. Izan be oso seerbitzaillea zan.

Bost liburu idatzi ebazan euskeraz, baiña Peru Abarka deritxona da ezagunena. Auxe dala esan geinke euskeraz idatzitako lenengo elebarria edo nobelea (1881). 240 orrialde dira. Ez da ba luze-luzea baiña bai irakurteko atsegiña.

Ona emen liburu onen gaia:Norki bi agertzen dira alkar-izketan, bakoitxak bere kultura daroala: Maixu Juan osagillea-edo da eta euskeraz txarto egiten dau jakituna izan arren eta Peru baserritarra da, baiña baserriko Ikastetxe Nagusian ondo ikasi dau euskerea.

Elebarriaren barruan liñuaren lana azaltzen da eta jakintza-arlo orretan egoan iztegia ikasteko oso egokia da. Gero olako itz egoki asko galdu egin dira.

Irakurleak ardura apur bat artu bear dau Mogel´en akats bat beragandu ez dagian. Mogel´ek bere aldiko beste askoren antzera, joskera oso txarra dauko: Latiñaren joskereagaz josten dau euskerea.

Ona emen elebarri onen zati bat, naikoa luzea, irakurleak irakurri eta aztertu dagian.

PERU ABARKA´REN ETXALDEA

Peru´k bere etxaldera daroa Maisu Juan, eta ango zer guztiak erakusten dautsoz.

Zurturik geratuko dira nire umeak zu zakusezanean, etorri ez oi dalako ona zu baizen gizon apaindurik;igesko dabe zokondoetara kuiak legez.

M.J.-Peru,atea jo baiño lenago esaidazu, arren, zer da kuia?

P.-Zuek konejua esaten deutzazuna; ta esaten jako kuia kuika edo kukuiska legez dabiltzalako, emen urten, an sartu, buruak orain agertu ta gero ezkutetan.

M.J.-Peru, txakur zaunka da, ta aundiarena. Oratuten badeust?

P.- Ez bildur izan: bakarrik etorri banintz, ezaban zaunka aserre usaiñekorik egingo ta bai urten bidera pozkariaz ailleari eragin ta parlantzuan neugaz ibilteko; egingo zituan pozezko intziriak. Etzaitu usigituko neugaz

zakusazanean, igarriko deutzulako zatozela bake, ta ez ezer eroatera. Txakurrari dagoka zaunka egitea, ta etxeur ta inguruan ibiltea.

Ogi puzka bategaiti, zelango oniritxi ta asko-gurea artuten ezteutsa bere ugazabari? Makillaka banatuarren ugazabak, intziri illetazkoak egingo ditu, ez baiña jarki eta agiñik erakutsi. To to bat esan orduko entzuten dau ta igarten dau ardi, auntz, idi edo beiren bat dabillega soloan, ta ateraten ditu arin onean. Urtik esaten bajako, alde egingo dau maiaren alboti, goserik andiena badauka bere; alperrik izango da gosesto salobrea.

Ipiñi gura zaitut gauza askoren jakitun, etxean sartu orduko, daukat Jaungoikoak emanda, emazte otzan, bakesu, euli bati bere gaxik egingo eleuskiona. Asten ditu umeak lotsa onean, mankau бага, ondo esanaz ta Jaungoikoaren bildurra irakatsiaz. Zorionez umeak eurak bere esaneakoak dira, jatorriz legez; eztakie erremuskada, beko-ki illun, ta mustur-astinketarik egiten.

Eztozu entzungo nire etxean biraorik, ez barailla, ospe astralaka, ta iskibidurik, bai berba onak Eleizako gauzak ta bake betikoa.

Daukadaz seme bi ta beste ainbeste alaba. Gari ta artoak daukadaz giltz бага ganbara zabalean; bada daukadazan otseñiak bere, azi ditugu geure umeak bagenduz legez, alkar maite dogula. Iñoren basori orri bat kenduten etxako, bai zaindu ondo geureak.

Orregaitiño Jaungoikoak emoten dausku gauzea ugari; topiñ ona beti izaten da; ilten dogu lauoiñeko gizona, idi lodi zezin ederra dabena. Euren denporetan izaten da jan al baiño geiago kastaiña ta sagar. Urte guztian, esaterako, daukagu eznea ta aurreratuten ditugu diruak lagunduteko gero umeai, aututen dabeen bizieran. (Peru Abarka,irugarren autua).

OLAZAR´tar Martin´ek

